

## Justizia eta eskubideak 21. mendean

### IRAKASKUNTZA GIDA

Filosofiak norbera, gizartea eta gure lekua unibertsoan ulertzeaz dihardu, baina ez da eginkizun teorikoa bakarrik. Praktiko ere bada, eta elkarbizitzarako zein ekintzarako lagungarria izan beharko luke. Ulertzeaz gain, mundua eraldatzeko ere balio du.

Autoikaskuntzara bideratutako *OpenCourseWare* prestakuntza honen helburua da justizia eta giza eskubideen ulermenean sakontzea, egungo erronkei dagokienez. 7 unitatetan zehar, gizarte eraldaketaren atzean dauden kontzeptu, prozesu eta indar nagusiei buruz ikasiko dugu, 21. mendeko gatazkak hobeto ulertze aldera.

Jorratuko ditugun gaiak interes orokorrekoak dira: gerra kolonizatzaileak, gatazka kulturalak, trantsizio ekosoziala, erresistentzia eta gizarte mugimenduak, demokrazia komunalaren iraupena, demokrazia liberalaren krisia, gobernantza modu berriak... gizarte berrikuntzarako baliabideak eta gogoetak aktibatze asmoz. Euskal eta nazioarteko filosofoen ikuspuntutik benetako kasu bat aztertuko dugu, AEBetako Standing Rock-en oraindik ere gertatzen ari dena, eta ondorio globalak dituena. Azterketa ez da soilik akademiko edo zientifikoa izango; mundu mailan erabiltzen den aldaketarako metodologia bat erabiliz —U teoria deritzona—, norberaren esperientziara eta gorputzera eramango dugu gaia.

Nori zuzendua dago? Interesa duen edonorentzat: ikastaroak ez du aurrebaldintzarik. Komeni da 19. eta 20. mendeko justizia teorien ezaugarri nagusiak ezagutzea (Marx, Rawls,...) baina ez da beharrezkoa. Ikastaroaren bidez, UPV/EHUko zeharkako gaitasunak landuko eta garatuko ditugu, batez ere berrikuntzari (BE) eta pentsamendu kritikoari (PK) dagozkienak. Amaieran, ikasleak:

- (BE01) egoera batean dauden hobekuntza beharrak identifikatzen ditu, haien garrantzia baloratuz eta lehentasun ordena ezarriz.
- (BE02) egoera jakin batean izandako aldaketek ekar ditzaketen abantailak eta aukerak deskribatzen ditu.
- (BE03) egoera edo arazo baten aurrean, konponbide berritzaileak sormenez proposatzen ditu.
- (BE04) jarrera eraikitzailea eta positiboa du, suertatzen zaizkion aldaketen eta zailtasunen aurrean.
- (BE05) bere kontzepzioak, prozedurak eta/edo jarrerak aldatzen ditu, bere itxaropenak egokituz erronka berriei aurre egiteko.
- (PK02) egoera baten azpian dagoen arazoa identifikatzen du; hura objektiboki ulertzeko beharrezkoa den informazioa biltzen du, eta elementu esanguratsuak aukeratzen ditu.

- (PK06) inguruan duen errealitatea zalantzan jartzen du, eta horren baitan dauden printzipioak, gertaerak, jarrerak eta balioak analizatzen ditu, bere jarrera propioa definitzeko.
- (PK10) arazo bat konpontzeko hainbat aukera kontrastatzen ditu, inplikaturako gertaerak, printzipioak eta balioak identifikatuz.
- (PK14) arazo bat konpontzen du ekiteko modu bat aukeratuz hainbaten artean, eta ekiteko modu horren irismenaren eta ondorioen analisisian oinarritzen du aukeraketa.
- (PK15) hainbat arlotako ezagutzak erlazionatzen ditu, egoera konplexuen aurrean diziplinarteko erantzun bat emateko.

Ikastaroaren luzera malgua da oso. 8 unitate ditu, eta denak lantzeko 60 orduko dedikazioa behar da. Baina horiek nola banatu ikaslearen eta inguruaren araberakoa izango da. Adibidez: 4 ordu asteko, 15 astez; edo 8 ordu egunero, astebetean.

## GAI-ZERRENDA

Gaiak eta gaitasunak lotzen dituen honako eskema honek ikastaroaren ikuspegi orokorra ematen du:

Gaiak (teoriko zein praktikoak)	Gaitasunak
Sarrera Aurrekariak (J. Rawls, Jakin taldea) Standing Rock vs. DAPL (kasu praktikoaren aurkezpena)	Pentsamendu kritikoa: PK02
Arriskuan dauden identitate kulturalak eta haien balioa Justizia teoriak: M. Nussbaum-en ekarpena Gizarte eraldaketarako tresnak: U teoria	Berrikuntza: BE01
Komuna den hori, bioboterea eta biopolitika Indigenen erresistentziaren tradizio luzea U teoriaren metodoa	Pentsamendu kritikoa: PK06
19. mendeko gerrak gaur Euskal pentsamendua eta kolonialismoari kritika: J. Azurmendi Entzumen eta elkarrizketa mailak	Berrikuntza: BE05 Pentsamendu kritikoa: PK10
Klima aldaketa eta krisi ekosoziala Historia eta genealogia Pentsamendu kolektiboa aktibatzen	Pentsamendu kritikoa: PK15
Boterea: nazio eskubideak Genealogiak egiten: mitoa eta artea Sistema konplexuak irudikatzen eta eraldatzen	Pentsamendu kritikoa: PK14
Internazionalismoa: nazioarteko harremanak Mito zaharretatik utopia berrietara Arazo edota blokeo sistemikoei nola aurre egin	Berrikuntza: BE03
Askapena: etorkizuneko eta iraganeko borroakak Historia nola kontatzen den Gorputza jartzea	Berrikuntza: BE04 BE02

## METODOLOGIA

Ikastaroa jarraitzea ahalbidetzen duten bi ibilbide gomendatzen ditugu:

1. Lauhilekoan jarraitzea (15 aste), 6 kreditu ECTSko graduiko ikasgai batean.
2. Astebetean jarraitzea modu intentsiboan (egunean 8 ordu), Uda Eskola batean.

Unitate bakoitzean, zer egin behar da?

- Bideo laburra ikusi (5-10 minutu).
- 10-40 orrialdeko Nick Estes-en atala irakurri.
- 10 bat orrialdeko lezioa edo Joxe Azurmendiren pasartea irakurri.
- Autoebaluaziorako ariketa edota praktika egin (talde lana behar duten praktikak hautazkoak dira).

## KRONOGRAMA

Jardueren lotura eta iraupena azaltzen dituen taula hau jarraitzea ezinbestekoa da:

Unit.	Irakurketak	Ariketak	Bideoak	Praktikak	Orduak
0	Irakaskuntza gida (dokumentu hau)	<i>Awake</i> filma (hautazkoa)	Aurkezpena	Ez dago	4
1	1A (Setioa) 1B. Lezioa	Ariketa 1	B1: U teoria	Ez dago	8
2	2A (Sorrera) 2B. Lezioa	Ariketa 2	B2: U bidaia	Ez dago	8
3	3A (Gerra) 3B. Lezioa	Ariketa 3	B3: entzutea	<i>Empathy walk</i>	8
4	4A (Uholdea) 4B. Irakurketa	Ariketa 4	B4: kasu klinika	Kasu baten azterketa (hautazkoa)	8
5	5A (Boterea) 5B. Irakurketa	Ariketa 5	B5: 3D mapa	#NoDAPL 3D modelatu	8
6	6A (Internazionalismoa) 6B. Irakurketa	Ariketa 6	B6: <i>stuck</i>	Bakarka praktikatu (hautazkoa)	8
7	7A (Askapena) 7B. Lezioa	Aukera anitzeko azterketa	B7: 4D mapa	#NoDAPL 4D modelatu (hautazkoa)	8

## MATERIALA/BALIABIDEAK

Ikastaroa jarraitu ahal izateko, beharrezkoak diren material edo baliabideak (irakurgaiak, lezioak, ariketak, bideoak, praktikak eta autoebaluaziorako txantiloiak) OCW gunean daude. Osagarri gisa, kasu praktikoa hobeto ezagutzeko gomendatzen da *Awake, a dream from Standing Rock* filma ikustea (<https://awakethefilm.org>).

Ikastaroko material guztiak Creative Commons lizentzia pean eskuragarri daude. Aurkezpen bideoa izan ezik, beste bideoak UPV/EHUren, Impact Hub Donostiaren eta Kutxa Fundazioren arteko lankidetzan sortu dira.

Azal irudiaren lizentzia: Shane Balkowitsch, CC BY-SA 4.0 <<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>>, via Wikimedia Commons.

## Oinarrizko bibliografia

- Azurmendi, J. 2018. *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*. Donostia: Elkar.
- Estes, N. 2020. *Gure historia da etorkizuna*. Iruñea: Katakarak.
- Garmendia Castaños, A. 2021. *Multitudearen utopia Inperio distopikoaren ispilu. Michael Hardten eta Antonio Negriren Empire bildumaren analisis utopiei buruzko ikerketen ikuspegitik*. Donostia: UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/55227>
- Nussbaum, M. 2007. *Fronteras de la justicia*. Bartzelona: Paidós.
- Ptes<sup>v</sup>°n Hunk<sup>v</sup>°, F. et. al. 2017. *Awake. A dream from Standing Rock*. <https://vimeo.com/213791250>
- Scharmer, O. 2018. *The Essentials of Theory U: Core principles and applications*. Oakland, CA: Berrett-Koehler.

Bibliografia espezifikoa lezio bakoitzaren barnean txertatuta dago.